

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektu baten arrakasta bermatzeko, bazkide eta hornitzaileen rola funtsezkoa izan daiteke. Baina badaude erakunde edo enpresa batzuk beren jardueran autonomoak direnak, hots, funtsezko elkarteak, enpresaren kideen arteko itunek osatzen dituzte. Hau da SARARGi-ren eredua: **Komunikazio Bitartekari bion arteko lotura izango da gure oinarria**. Bion ezagutzak eta prestakuntzak uztartzearen ondorioz, proiektu enpresarial hau abiatuko dugu eta honen barneko erronkei helduko diegu.

Zentzu berean, komeni da bazkiderik ez izatearen abantaila nagusiak aipatzea:

- **Autonomia eta kontrola:** proiektua modu autonomoan kudeatzeko aukera dago, kanpoko eragileen esku-hartzerik gabe. Honek malgutasun eta azkartasun handiagoa ematen du erabakiak hartzeko prozesuan.
- **Kostuen aurrezpena:** funtsezko jarduerentzat (PIAU-en garapena edota egokitzapen zehatzak) hornitzaileak ez izateak kolaborazioei lotutako kostuak murrizten ditu, hala nola, zerbitzuen ordainketak edo akordio ekonomikoak.
- **Prozesuen sinplifikazioa:** kudeatu beharreko kanpoko eragileak gutxiago direnean, proiektuaren kudeaketa errazagoa izan daiteke.

Hala ere, SARARGI-ren jardunaren gehiengoa hornitzaileak gabe garatuko dugun arren, emango ditugun zerbitzu ezberdinetan egokitzapen fisikoak proposatuko ditugu. Hauetarako aldiz, egokitzapenak gauzatuko dituzten enpresekin funtsezko itunak adostu beharko ditugu. Baina puntu honetan azpimarratu behar dugu, harreman hauek enpresatik enpresara edota proiektutik proiektura gauzatuko direla SARARGI-ren autonomian eragina izan gabe.

Arestian aipatutako itunen zergatia, egokitzapen batzuk burutzeko, SARARGI-ren konpetentzitik kanpo kokatzen diren ezagutza teknikoak beharrezkoak izatea da. Kasurik argiena, argindarrari lotutako egokitzapenak liratezke, edota irudiekin zerikusia duten zenbait moldaketa espezifiko diseinatzaile baten beharra dutelako.

Itunekin jarraituz, epe luzeko harremanak izateak zenbait abantaila ekarriko dizkigu:

- **Arriskuak murriztu:** konfiantzan, esperientzian eta lankidetzan oinarritutako elkarteak izango dira. Gainera, eraikin edo espazio ezberdinetan egokitzapen tekniko berdinak errepikatu behar izateak jakintza emango die itunduko ditugun enpresei, eta bezeroarengan SARARGI markarekiko konfiantza sortaraziko dugu.
- **Negoio eredua optimizatu:** egokitzapen bakoitzaren aurrean nork egingo duen ez dugu bilatu behar izango, baizik eta errekurtso hori kanpoko izan arren, itunen bidez, SARARGI-ren baliabidea izango dela.

Ondorioz, nahiz eta SARARGI-k bere kideen erabakien autonomiaz gozatuko duen, bere ibilbidea garatzerakoan, enpresaren kanpoko konpetentziak gauzatzeko bestelako profesionalekin itunak eratzeko beharra izango du.